

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko martxoaren 24an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

18.- BERMEOKO AUZO-GUNEETARAKO UR HORNIDUREA ALMIKAKO UETE-TIK (IV. FASEA) BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Bermeoko auzo-guneetarako ur hornidurea Almikako UETetik (IV. Fasea). Behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Prozedura negoziatuaren bidez 3 enpresa gonbidatu dira eskaintzak aurkezteko.

- CONSTRUCCIONES R. INCHAURTIETA
- URRE, SA
- CONSTRUCCIOENS F. ZARRAGOIKOETXEA

CONSTRUCCIONES R. INCHAURTIETA eta CONSTRUCCIONES F. ZARRAGOIKOETXEA enpresek ez dabe hobekuntzarik aurkeztu eta, eskaintzen arabera, lizitazio-prezioa mantentzen da.

Bigarrena: Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta kalifiketako sistema kontuan hartuta, URRE SA enpresek lortu dau punturik gehien. Hauxe da puntu-kopuruaren taulea:

Enpresea	Hobekuntzak (0-100)		Guztira (0-100)
	Obra gehitzea (0-70)	Bestelakoak (0-30)	
CC. R. INCHAURTIETA	0	0	0
URRE	70	5	75
CC. F. ZARRAGOIKOETXEA	0	0	0

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Bermeoko auzo-guneetarako ur hornidurea Almikako UETetik (IV. Fasea) URRE, SA enpreari esleitzea behin-behinekoz, 148.354,55 euroan (BEZa kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 23.736,73 €-koa da. Guztira, 172.091,28 €.

BIGARRENA: Kontratuan jaso beharko dira enpreak aurkeztutako hobekuntza guztiak.

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea, behin betiko esleipena egin ahal izateko, jarraian adierazoten dan jarduketea egin beharko dauela:

- Behin betiko bermea jarri (7.417,73 €).

Horretarako hamar (10) laneguneko epea eukiko dau, erabagiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko martxoaren 29an.

ONETSIA
ALKATEA